



ZUZENBIDE PROZESALA ALDERDI AKUSATZAILEAK

Katixa ETXEBARRIA ESTANKONA

AURKIBIDEA: I. Zigor-prozesuko alderdi kontzeptua.-1. Alderdia zentzu formalean.-2. Zigor-prozesuko alderdiak eta hauek sailkatzeko irizpideak.-**II. Alderdi akusatzaileak.**-**III. Ministerio Fiskala.**-1. Ministerio Fiskalaren eginkizun orokorrak.-2. Ministerio Fiskala eraentzen duten printzipioak.-3. Eginkizun zehatzak zigor-prozesuan.-**IV. Herri-akusatzailea.**-1. Oinarria.-2. Legitimazioa.-3. Baldintzak.-**V. Akusatzaile partikularra.**-1. Kontzeptua eta oinarria.-2. Legitimazioa.-3. Baldintzak.-**VI. Akusatzaile pribatua.**-1. Kontzeptua eta oinarria.-2. Legitimazioa.-3. Baldintzak.-4. Ofendituaren borondatearen garrantzia.-**VII. Alderdi akusatzaileen gaitasuna eta postulazioa.**

I. Zigor-prozesuko alderdi kontzeptua

1. Alderdia zentzu formalean

Prozesuko penaleko alderdi akusatzaileak aztertu baino lehen, testuinguru honetan aplikatu beharreko aldiaren kontzeptua argitu behar dugu.

Oro har esan daiteke prozesuko alderdiak direla Prozesuko alderdiak dira babes judizial eraginkorra eskatuz jurisdikzio-organoaren aurrean uzia jartzen duen subjektua – auzi-jartzaile edo alderdi aktiboa– eta uzi horren eskaeraren pairatzailea –alderdi pasiboa–. Baina *ius puniedi*-ren izaera bereziak aipatutako kontzeptua zigor-prozesuko eremuan aplikatzeko zailtasunak dakartza. Honen ondorioz, zigor-prozesuko alderdien existentzia bera zalantzan jartzen da; izan ere, prozesu penalera kontzeptuaren zuzeneko translazioa eginda, onartu beharko genuke alderdi bakarrak izango liratekela ustezko delituzko egintzaren biktima eta ustezko erantzulea. Honela, definizioak kanpoan utziko luke beste subjektuen parte hartzea, Ministerio Fiskalarena eta herri-akusazioarena, hain zuzen. Egia esan, zigor-prozesuan ez dago eskubide subjektiboei buruz hitz egiterik, ezta harreman material eta prozesalaren arteko elkarrekotasunik ere.

Kontuan hartuta zigor-prozesuan ez direla ematen prozesu zibileko bezalako baldintzak, irtenbidea izango litzateke alderdien kontzeptua prozesura mugatzea, hau da, alderdia zentzu formalean ulertzea. Beraz, alderdia da zigor-prozesuan parte hartzen duena jurisdikzio organoari erabaki bat hartzea eskatuz, akzio eskubidea egikaritzen duena, kontrakotasunean parte hartzen duena, subjektuak prozesuko mamiarekin duen harremana alde batera utzita.

2. Zigor-prozesuko alderdiak eta hauek sailkatzeko irizpideak

Kontzeptu formala aplikatuta, prozesuko penaleko alderdiak dira, honetan duten posizioa kontuan hartuta:

- Posizio aktiboan: alderdi akusatzaileak dira Fiskaltza –akusazio publikoa aurrera eramaten duena–, herri-akusazioa, akusazio partikularra –ofenditua edo biktima–, eta akusatzaile pribatua. Ikus daitekeenez, estatu espainiarrean Fiskaltzak ez du zigor-akzioaren egikaritzaren monopolirik. Alderdi akusatzaileetaz gain, auzi-jartzaile edo aktore zibila egon daiteke, prozedura penalean akzio zibilak ere egikaritzen badira.



- Posizio pasiboan: alderdi akusatua dira ikertua, auzipetua eta akusatua. Prozedura penalean akzio zibilak ere egikaritzuz gero, aurrekoetaz gain, prozesuan zuzeneko erantzule zibil edo subsidiarioa ere egongo da.

Aurreko sailkapenez gain, kontuan hartu beharko genuke alderdi guztiak ez direla derrigorrez agertu behar zigor-prozesu guztietan. Horren ondorioz, doktrinak alderdiaren beharrezkotasunaren arabera sailkapena egiten du:

- Posizio aktiboan: epaitu beharreko delituaren izaeraren arabera, beharrezko alderdiak desberdinak izango dira. Hau dela eta, *delitu publikoak* izanez gero, beharrezko alderdia Fiskala bakarrik izango da; akusazio partikularra eta herri-akusazioa, aitzitik, betiere kontingenteak izango dira. *Delitu erdipublikoen* kasuan ere Fiskala beharrezko alderdia izango da, akusazio partikularra, aldiz, kontingentea. Amaitzeko, *delitu pribatuak* epaitzeko prozesuan, beharrezko alderdi bakarra akusazio pribatua izango da; are gehiago, kasu honetan Fiskalak ez du inolako legitimaziorik.
- Posizio pasiboan: beharrezko alderdia akusatua da beti, izan ere, bera ez badago, ez dago zigor-prozesurik. Erantzule zibilak, bere aldetik, betiere kontingenteak dira¹. Alde batetik, beharrezkoa izango da delituzko egintzak kalte-galerak sortarazi izana eta, bestetik, ofendituak edo kaltetuak kalte-galerengatik ondorioztatutako akzio zibila egikaritu izana. Izan ere, ofendituak edo kaltetuak akzio zibilari uko egin ahal dio edo prozesu zibilerako gorde dezake.

II. Alderdi akusatzaileak

Lehenik eta behin argitu beharko genuek nahiz eta prozesu osoan zehar alderdi akusatzaileetaz hitz egin, egia esan, akusatzaileak ahozko epaiketan baino ez dira agertzen, kalifikazio edo akusazio-idazkiak aurkeztu ostean.

Aipatu dugunez, prozesu penalean parte har dezaketen alderdi akusatzaileak hurrengoak dira: Ministerio Fiskala, akusatzaile partikularra, herri-akusatzailea eta akusatzaile pribatua. Hurrengo orrialdeetan alderdi hauek aztertzeari ekingo diogu.

III. Ministerio Fiskala

1. Ministerio Fiskalaren eginkizun orokorrak

Bai EKren 124² bai BJLOren 435 artikuluek aurreikusten dituzte Ministerio Fiskalaren oinarrizko funtzioak eta horren jarduera-printzipioak. Zentzu honetan, Ekren 124.1 artikulua funtzio orokorrak zerrendatzen ditu: legezketasuna, herritarren eskubideak eta interes publikoa defendatuz justiziaren egintza bultzatzea, auzitegien independentzia zaintzea eta horien aurrean gizarte-interesa asetztea.

Aipatutako funtzioen eremuan, MFEOak zehazten ditu Ministerio Fiskalaren eginkizunak: zigor-akzioak eta zibilak egikaritzea edo hauen aurka egitea, egokia denean; zigor-prozesuan parte hartzea, jurisdikzio-organiari eskatuz, egintzak argitzeko beharrezko eginbideak burutzea, egokiak diren kautelazko neurriak hartzea eta biktimen babes prozesala; eta funtzio jurisdikzionalaren egikaritzea, konstituzio-erakunde eta oinarrizko

¹ PKLren 100. art. hartu behar dugu kontuan: “Delitu (...) guztiek zigor-akzioa sortarazten dute, baina batzuetan akzio zibila ere izaten da”.

² Ekren 124. art.-a MFEOak garatua izan da, 1981eko abenduaren 30eko 50/1981 Legeak onartuta.





eskubide eta askatasunetikiko errespetu egokia eta gizarte-interes eta interes publikoa ukitzen duten ebazpenen betetzea zaintzea.

2. Ministerio Fiskala eraentzen duten printzipioak

Aurreko atalean aipaturiko eginkizunak EKren 124. art.-ren 2. atalean zehaztutako printzipioen arabera betetzen ditu Fiskalak. Honela, Ministerio Fiskala jarduera-batasunaren eta mendekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera eratuta dago. Honen ondorioz, Ministerio Fiskala bakarra da estatu osorako³; estatuaren fiskal nagusia da Ministerio Fiskalaren buru goiena, eta haren ordezkaria Espainiako lurralde osoan. Berari dagokio zerbitzuari eta erakundearen barne-ordenari komeni zaizkion aginduak eta instrukzioak ematea eta, oro har, Ministerio Fiskalaren zuzendaritza eta ikuskaritza (MFEOren 22.2 art.). Horrek esan nahi du Ministerio Fiskalak egitura piramidal eta hierarkikoa duela; izan ere, gobernuak berak proposatzen du –BJKNak entzunda- Estatuako Fiskal Nagusia⁴.

Ministerio Fiskalak betiere legezketasun eta inpartzialtasunaren menpe jarduten du. Beraz, alde batetik, fiskalak legeak eskatzen duenean eta honek aurreikusten duenaren arabera jarduten du; beste hitz batzuetan, fiskala ez da askea erabakitzeke zein kasutan egikaritzen duen akzio penala. Dena dela honek ez du esan nahi salbuespenik ez dagoenik; zentzu honetan, hainbat kasutan, delitu arinak direnean eta legezko baldintzak emanda (PKLren 963. eta 964.2 a) art.) fiskalak zigor-prozesuaren largespena eskatu ahal dio jurisdikzio-organoari, delitua egonda ere. Bestetik, inpartzialtasunaren arabera, Ministerio Fiskalak objektibotasunez eta independentziaz jarduten du beraren esku uzten diren interesen defentsan (MFEOren 7. art.).

3. Eginkizun zehatzak zigor-prozesuan⁵

Ministerio Fiskalaren funtzio orokorrak eta printzipioak adierazita, azter ditzagun zigor-prozesuan dituen eginkizun zehatzak.

(1) Zigor-akzioa egikaritzea

Esan genezake Ministerio Fiskalak zigor-prozesuan aurrera eramaten duen funtziorik garrantzitsuena akusazio formala gauzatzea dela. Berak egikaritzen du akzio penala burututako delituengatik (MFEOren 3.4 art.); eta azpimarratu beharra dago berarentzat zigor-akzioa egikaritzea ez dela eskubidea, betebeharra baizik.

Dena dela, zigor-akzioa egikaritzeko bere legitimazioa desberdina izango da epaituko den delituaren arabera. Honela, *delitu publikoak* izanez gero, Fiskala zigor-akzioa egikaritzera behartuta dago⁶. *Delitu erdipublikoak*⁷ direnean, zigor-akzioa egikaritu behar du ere bai, baina kasu honetan beharrezkoa izango da ofendituak alde aurretik delituzko egintzaren salaketa aurkeztu izana. Hala ere, ofenditua pertsona babesgabea edo

³ Honela dio literalki MFEOren 22.1 artikulua.

⁴ Epaitegi eta auzitegi guztietan MFren ordezkari bat edo gehiago daude, ofizialki jurisdikzio-organoari atxikitutako Fiskaltzaren buru bakarraren gidalerroen menpe jarduten dutenak. Era berean, organo bakoitzaren fiskal-burua estatuaren Fiskal Nagusiaren agintearen menpe jarduten du. Ikus. MFEOren 22.3-28 art.

⁵ Zentzu honetan, MFEOren 3.4, 5, 6; PKLren 105, 303, 773.2, 306 eta 505. art.

⁶ Dena dela, salbuespen bat aurkitzen dugu delitu arinak direnean. Zentzu honetan, fiskalak diskrezionaltasunean oinarrituta, delitu arinen kasuetan largespena eskatu ahal du, baldin eta oso larritasun gutxiko egintzak badira eta delitua jazartzeko garrantzizko interes publikorik ez badago (PKLren 963.1.1. art.).

⁷ Delitu erdipublikoak jazarri ahal izateko, beharrezkoa da ofenditu edo biktimaren alde aurreko salaketa.





adintxikikoa izanez gero, fiskalak berak salatu beharko du. *Delitu pribatuei*⁸ dagokienez, aldiz, Ministerio Fiskalak ez du inolako legitimaziorik; azken kasu honetan, prozesua biktimak edo ofendituak eskatuta baino ez baita martxan jartzen.

Zigor-akzioaz gain, fiskalari delituzko egintzatik ondorioztatutako akzio zibila ere egikaritzea dagokio, ofendituak edo kaltetuak akzio zibilari uko egiten zaionean edo prozesu zibilerako gordetzen duenean izan ezik (PKLren 108. art.).

Baina kontrakoa dirudien arren, Ministerio Fiskala ez da beti akusazio moduan agertzen zigor-prozesuan. Bidezkoa denean, beste batzuek egikaritu dituzten zigor- eta akzio zibilen aurka egiten du (MFEOren 3.4 eta 6 art.). Honek esan nahi du, praktikan, absoluzioa eskatuko duela, beste akusatzaleek egikaritutako akzioak bidezkotzat jotzen ez dituenean. Izan ere, hauxe Ministerio Fiskalaren jarduera eraentzen duen legezketasun printzipioaren ondorioa da: egiaztatutako egitateetatik ateratako ondorioen arabera egin behar ditu Ministerio Fiskalak.

(2) *Salaketak jasotzea* (MFEOren 5.1; PKLren 259, 262, 264. art.)

Fiskalak salaketak jaso ahal dituen organoa da. Salaketak jaso eta aztertu ondoren, eta hala dagokionean, ikerketa-eginbideak bideratu eta jurisdikzio-organismoari bidaliko dizkio; kontrako kasuan, oinarri gabeko salaketak izanez gero, artxibatu egingo ditu eta interesdunei erabaki horren berri jakinaraziko die, nahi izanez gero, salaketa jurisdikzio-organoen aurrean berriz tarteratu ahal izateko (MFLOren 5. art. eta PKLren 259, 262 eta 264. art.).

(3) *Ikerketa-eginbideak eskatzea* (PKL 303 eta 773.2 art.).

Zigor-prozesuko instrukzioa ahozko epaiketa prestatzera zuzenduta dagoen fasea da, egitateen zirkunstantziak eta delitugileak ikertzea helburu duena. Fase hau ikerketa-eginbideek eta prozesua modu egokian aurrera eraman ahal izateko jarduerak osatua dago (PKLren 299 art.). Espainiako zigor-prozesuan instrukzioa egitea epaileari dagokio (PKLren 303. art.), dena den, honek ez du galarazten Ministerio Fiskalaren garrantzizko parte hartzea⁹.

Alderdi akusatzaile moduan, Ministerio Fiskalak instrukziorako beharrezkotzat jotzen dituen ikerketa-eginbideak egin daitezten eskatuko du. Hala ondorioztatzen da MFEOren 3.5 artikulutik (PKLren 311. art., prozedura arruntean; PKLren 773. art., prozedura laburtuan; ZELOren 27. art., zinpekoen epaimahaiaren bidezko prozeduran).

Delitu larriengatko prozesuan Ministerio Fiskalari sumarioaren eraketaren zuzeneko ikuskapena dagokio (PKLren 306.2 eta 3; 319 art.).

Fiskalak ahalmen hau egikaritutako du pertsonalki edo bere laguntzaileen bitartez, baita instrukzio-epaileari eskatutako txostenen bitartez ere. Funtzio hau gauzatzeko fiskala alderdi moduan aurkeztuko da prozesuan eta beharrezkotzat jotzen dituen eginbideak eskatuko ditu.

Prozedura laburtuari dagokionez, aurretiazko eginbideen (instrukzioaren) fasean eskumen gehiago esleitu zaizkio fiskalari, prozesu-aurreko eta berriazko ikerketa egiteko ardura emanez. Honela, fiskala ikerketaren ikuskapen eta kontrolaz arduratzeaz gain, izapidetza bultzatzea eta erraztea, Polizia Judizialari jarraibideak ematea eta jardunetan parte hartzea dagozkio, besteak beste. PKLren 773.2 artikulua dioenez, salaketa edo poliziaren atestatua jasota, egitea eta egileen erantzukizuna egiaztatzeke beharrezko eginbideak

⁸ Gaur egun, Zigor-Kodeak aurreikusitako delitu pribatu bakarrak 215.1 artikulua jasotzen dituenak dira: partikularren kontrako kalumnia eta irania delituak.

⁹ Izan ere, Austizia Administrazioaren Letratuak delituen berri duenean MFri jakinarazi behar dio (PKLren 308. art.).





gauza ditzake, Polizia Judizialari¹⁰ ikerketa-eginbideak aginduta. Izan ere, eginbide horiek burututakoan, zigor-akzioa egikaritzeaz erabakiko du. Honela, egitatea delituzkoa ez bada, fiskalak jarduerak artxibatuko ditu, edo, delitua badagoela uste izateagatik hala dagokionean, instrukzio-epaileari helaraziko dizkio jardunak, aurretiazko eginbideak has ditzan. Honela gertatuz gero, epaileak aurretiazko eginbideak hasi bezain laster, fiskalak bertan behera utzi behar ditu ikerketak, epaileak berak jarrai ditzan.

(4) *Largespena eskatzea edo akusazioa egitea*

Instrukzioa bukatzean, salbuespenak salbu, fiskalak akusazio formala egiten du. Funtzio hau kalifikazio-idazkiaren bitartez betetzen du prozedura arruntean (PKLren 650. eta 732. art.), eta akusazio-idazkiaren bitartez, berriz, prozedura laburtuan (PKLren 781. eta 788.3 art.).

Baina, hainbatetan, akusazio aurkeztu beharrean, fiskalak largespena eskatzen du, behin betiko edo behin-behineko largespena emateko zioak badirela irizten dionean (PKLren 627. eta 642. art., prozedura arruntean; eta 782. art., prozedura laburtuan).

(5) *Atxiloketa agintzea*

MFEOn 5.2 artikulua aurreikusten duenaren arabera, fiskalak prebentziorako atxiloketa agin dezake. Hala eta guztiz ere, aipatutakoaz aparte, fiskalak ez dauka kautezko neurririk edo eskubideak murrizten dituenik hartzeko aukerarik.

(6) *Kautelazko neurriak eskatzea*

Kautelazko neurri pertsonalak erabaki ahal izateko, epaileak entzunaldi batera deitu behar die prozesuko alderdi guztiei, fiskala barne. Entzunaldi horretan, legezko baldintzak ematen diren aztertutakoan, fiskalak edo gainerako alderdi akusatzaileek ikertu, auzipetu edo akusatuari behin-behineko espetxeratzea edo fidantzapeko behin-behineko askatasuna ezartzea eskatzen dute. Jurisdikzio-organoak hartuko du azken erabakia, baina garrantzitsua dena zera da: inongo alderdi akusatzaileek kautela-neurri horiek eskatzen ez badu, aske geldituko da ikertua edo auzipetua (PKLren 505. art.)¹¹.

(7) *Beste eginkizun batzuk*

Ikusi dugunez, fiskalak prozesuko gainontzeko alderdiei dagozkion eginkizunak burutzen ditu, nolana ere, berari beste funtzio batzuk dagozkio eskusiboki, sumarioa amaitzeko luzapena eskatzea, konfiskazio-akzioa egikaritzea eta adingabekoen prozeduran instrukzioa zuzentzea, hain zuzen ere.

Gainera, legezkotasunaren defendatzaile moduan jarduteak bere eskaera batzuei izaera lotestea esleitzen die. Honela gertatzen da ikerketa eginbideak burutzea edo auziaren largespena eskatzen duenean. Beste kasu batzuetan, bere iritzia ez da loteslea izango, baina bai entzun beharrekoa, komunikazioen sekretua mugatzen duten eginbideak erabakitzeko kasu.

¹⁰ PKLren 283. artikulua arabera, Polizia Judizialak Auzitegi eta Ministerio Fiskalari laguntzen die.

¹¹ Zinpekoen Epaimahaiaren Legeak PKLren manu batzuk erreformatu zituen; hain zuzen ere, zigor-prozesuan epaileak duen esku-hartzea aldatu zuen eta akusazio-printzipioa indartu egin zen. Orduetik aurrera, ezin har daitezke pertsonen buruzko kautela-neurri batzuk, baldin eta alderdi akusatzaileetarikoa batek, eta bereziki fiskalak, hala eskatzen ez badu. Erreforma egin baino lehen, instrukzio-epaileak sumarioa hasten zuen eta berak erabakitzen zuen, ofizioz, akusatua espetxeratu edo haren behin-behineko askatasuna agindu behar zen.





IV. Herri-akusatzailea

Espainiako estatuan zigor-akzioa publikoa da (EKren 125 art.). Honek edozein espainiar herritarrek –delituak ofenditua edo kaltetua ez bada ere– egikaritu ahal izatea dakar (PKLren 101 eta 270. art.). Hau da, Ministerio Fiskalak ez du zigor-akzioaren egikaritzaren inongo monopoliorik¹². Beraz, legeak zigor-akzioaren egikaritza Ministerio Fiskalari eta delituak ofendituari –akusazio partikularrari– ezezik, edozein espainiar herritarri esleitzen zaio. Azken hau, delituak zuzeneko ofenditua edo kaltetua ez dena, herri-akusatzailea da.

Duela gutxi Auzitegi Gorenak hainbat epai eman ditu herri-akzioaren egikaritzari buruz. Auzitegi hau prozedura laburtuan herri-akzioa egikaritzeko eskubidea desberdintzen saiatu da Ministerio Fiskala akusatzailea den edo ez kontuan hartuta. 2007ko abenduaren 17ko epaian (*Botin kasuan*) Auzitegi Gorenak adierazi zuen herri-akusatzailea ahozko epaiketaren hasiera eskatzen eta akusazioa aurkezten duen alderdi bakarra izanez gero, ez zela nahikoa ahozko fasea zabaltzeko. Hilabete batzuk beranduago, 2008ko apirilaren 8ko epaian, (*Atutxa kasuan* emanda) aldiz, Auzitegi Gorenak, bakarra zen herri-akusatzailearen eskaera onartu zuen ahozko epaiketa zabaltzeko, nahiz eta Ministerio Fiskalak honen aurka egon. *Noos* kasuan, herri-akusatzailea akusazio bakar onartu zen ahozko epaiketaren hasiera eskatzeko.

1. Oinarria

EKren 125. artikulua araberak, “Herritarrek herri-akzioa baliatu ahal izango dute, eta Justizia Administrazioan parte hartu, bai zinpekoen epaimahaiaren bitartez, legeak erabakiriko moduan eta zehazturiko zigor prozesuetan, bai ohiturazko eta tradiziozko auzitegietan”. Ikus daitekeenez, herri-akzioaren oinarria –eta baita Zinpekoaren Epaimahaiarena ere– Espainiako Konstituzioan bertan jasota dago. Herri-akzioa Espainiako herritar guztien konstituzio-eskubidea da baina honen edukia, baldintzak eta garapena lege zehaztu egin behar da; beste hitz batzuetan esanda, legezko konfigurazioaren eskubidea da eta, horren ondorioz, eremu batzuetatik kanpo geratzen da, jurisdikzio militarrean eta akingabekoen prozeduretan, hain zuzen ere.

Goian ageri denez, Espainiako herritar guztiek dute herri-akzioa egikaritzeko eskubidea, delituak ofenditua izan ez arren. Baina azpimarratzekoa da legitimazio hori apartekoa dela, EKren 125. artikulua aintzatesten duelako; herri-akusatzaileak ez du zertan izan behar delituak ofenditua, zigor-akzioa egikaritu ahal izateko. Baina oinarrizko eskubidea ez denez, akusatzeko eskubidea ukatzen denean, ez dago zuzeneko babes-errekurtsorik jartzetik.

Herri-akzioa egikaritzeko eskubidearen aurreikuspena gizarte osoaren interesak babestera zuzenduta dago, ulertzen da legezkotasunaren defentsan, justizia sustatzea duela helburu. Hau da, herri-akzioa egikaritzen duenak ez ditu eremu pertsonaleko bidezko eskubide eta interesen defentsa eskatzen, herritar guztien edo kolektibitatearen interesen babesa baizik.

¹² Zigor-akzioa Ministerio Fiskal eta partikularren esku dago. Dena dela, fiskalarentzat zigor-akzioaren egikaritza betebeharra da eta partikularrentzat, aldiz, eskubidea.





2. Legitimazioa

PKLren 101 artikulua adierazten duenez, “zigor-akzioa publikoa da. Akzio hori espainiar guztiek egikaritu ahal izango dute, lege honetan jasotako manuen arabera” (zentu berean, 270. eta BJLOren 19.1 art.). Ondorioz, espainiar herritarrek baino ezin dute herri-akzioa egikaritu. Aurrerago ikusiko dugunez, aipatutako adierazpenak ez du esan nahi atzerritarren zigor-akzioa egikeritza ez dutenik. Legeak atzerritarrei ere zigor-akzioa egikaritzeko eskubidea esleitzen die, baina baldin eta beraiek delituak kaltetu edo ofendituak badira (ikus. 270 I eta II eta 280-281 art.). Ondorioz, atzerritarrak akusatzaile partikula izan daitezke, baina ez herri-akusatzaileak.

Pertsona juridikoei dagokienez, hasiera batean dudak sortu ziren: pertsona juridikoak ere herritarrak dira? 1982ko maiatzaren 2ko epaian, Auzitegi Gorenak pertsona juridiko bati akusazio gisa prozesuan jarduteko aukera ukatu zion, herritartasuna pertsona fisikoei bakarrik zegokiela argudiatuta. Kasu hartan Auzitegi Gorenak EKren 125. artikulua interpretazio zorrotza egin zuen, herri-akzioari errealitate praktikoa ukatuz. Hala ere, jurisprudentzia guztiz aldatu da eta Ekren 125. artikulua erabiltzen duen “herritar” terminoaren interpretazioa zabaldu egin da¹³. Egia esan, onartu behar dugu herri-akzioa, Konstituzioan jasotzen den eskubidea izanik, ezin muga daitekeela pertsona fisikoetara. Ekren 125. artikulua interpretazio zabala egin beharra dago; izan ere, pertsona juridikoei herri-akzioa egikaritzea ukatuko balitzaie, nabarmen murriztuko litzateke herri-akzioaren erabilgarritasun praktikoa, partikularrek ez baitute izaten horretarako interesik, ezta bitartekorik ere.

Jurisprudentziak hainbat irizpide ezarri ditu pertsona fisikoak herri-akzioa egikaritu ahal izateko, bereziki, delituzko egitateak pertsona juridikoaren objektuaren interesak ukitzen dituztenean, adibidez, kontsumitzaileen eskubideen kontrako delituak izatea, kontsumitzaile elkarte batek herri-akusatzaile moduan parte hartu ahal izateko. Herri-akzioaren konfigurazio bereziaren ondorioz –interes publikoa defendatzen baita–, legitimazioa delitu publikoetarako bakarrik onartzen da, delitu pribatu eta erdipribatuen kasuetan egikaritzea ezinezkoa izanik. Azaldu dugunez, delitu erdi publikoetan, prozesua abian jartzea ofendituaren borondatearen mende dago¹⁴. Ofendituak salaketa aurkeztu ezean, ez dago prozesurik, baina prozesua hasita ere, akusazio partikularraz gain –prozesuan akusazio partikularrik agertuz gero–, Ministerio Fiskalak beste inork ezin du akusaziorik aurkeztu. Delitu pribatuengatik prozesuetan, aldiz, akusazio bakarra akusatzaile pribatuarena da, hots, ofendituarena.

PKLren 102 eta 103. artikuluek hainbat kasu zehazten dituzte zeintzuetan subjektuek ez dute legitimaziorik izango herri-akzioa egikaritzeko. Hauexek dira:

- Lege zibilen arabera eskubide zibil oro ez dituztenak: adingabeak eta ezgaituak. Kasu honetan ez litzateke posible legezko ordezkartzaren aplikaziora jotzea.
- Kalumniazko salaketa edo kereila-delituen errudun gisa epai irmo bidez bi aldiz kondenatuak izan direnak. Baina delituzko egintzaren subjektu pasiboak izanez gero, akusatzaile partikular gisa egikari dezakete zigor-akzioa.
- Epaille eta magistratuak. Baina hemen galdera hurrengoa da: ofenditua edo kaltetua epaille edo magistratua bada? Kasu horretan, legitimazioa izango luke, baina akusazio partikular gisa (egia esan, ez luke herri-akzioa egikaritzeko).

Hala ere, legeak (PKLren 102. art.) salbuespenak aurreikusten ditu aipatutako arauetan. Hiru kasuetan, aipatutako pertsonen ezkontideen, aurrekoen, ondorengoen, odol

¹³ Aipatzekoak dira, abenduaren 21eko 241/1992 eta 147/1985 Konstituzio Auzitegiaren epaiak, bestek beste.

¹⁴ Argitu beharra dago herri-akusatzaileak zigor-akzioa baino ez duela egikaritzen. Hau da, honek ez du delituzko egintzatik ondorioztatzen den akzio zibila egikaritu, ezta kostuen kondena eskatu ere.





bidezko nahiz sabeleko anai-arreba edo ezkontza-ahaideen kontrako delituengatik zigor-akzioa egikari dezakete hasiera batean baztertuek. Gainera, bigarren eta hirugarren kasuan baztertutakoek beren legezko zaintzapean dauden pertsonen edo ondasunen kontrako delituengatik ere zigor-akzioa egikaritu dezakete. Azpimarratu behar dugu legeak salbuespentzat hartzen dituen arren, kasu horietan egikaritzen dena ez litzatekeela herri-akzioa, zigor-akzio arrunta baizik; beraz, akusazio partikularra osatuko lukete.

- Ezkontideak elkarren artean, batak bestearen nahiz seme-alaben kontra egindako delituak direnean izan ezik.
- Aurrekoak eta ondorengoak, odol bidezko nahiz sabeleko anai-arreba edo ezkontza-ahaideak, elkarren kontra jarduteko, elkarren kontrako delituak direnean izan ezik.
- Aipatutako kasuei beste bat gehitu beharko genioke: atzerritarrena. Atzerritarrek ez dute herri-akzioa egikaritzeko eskubiderik (PKLren 270. art.), biktimak beraiek direnean izan ezik. Azken egoera honetan, akzio penala egikari dezakete, baina ez herri-akusatzaile moduan, akusatzaile partikular gisa baizik.

3. Baldintzak

(1) Kereila jartzzea

Herri-akusazioa kereila bidez egikaritzen da, eta beharrezkoa izango da prozesua hasteko nahiz prozesua hasita dagoenean (PKLren 270 I eta 761. art.). Izan ere, kontuan hartu behar dugu herri-akusatzaileari legetik datorkiola legitimazioa –ezohiko legitimazioa da, ofenditua edo kaltetua ez baita–, eta, horren ondorioz, akzio propioa egikaritzen dutela, eta ezin daiteke hartu beste batek –fiskalak edo akusatzaile partikularrak– egikaritutako akzioaren atxikitze gisa. Dena dela, jurisprudentziak ñabardurak sartu ditu betekizun honetan, adieraziz kereila ez dela beharrezkoa izango, beste edozein akusatzaile batek egindako kalifikazioei atxikitze helburuz aurkezten denean.

Jurisdikzio-organoak kereila onartuz gero, kereilaria alderdi bihurtzen da.

(2) Postulazioa

Kereila ahalorde berezia duen prokuradore eta abokatuaren bitartez aurkeztu behar da (PKLren 277. art.)¹⁵. Hauek ez dira inoiz ofizioz izendatzen.

Postulazioari dagokionez, PKLren 113. artikulua adierazten du prozesuan akusatzaile batzuk egonez gero, jurisdikzio-organoak zuzendaritza eta ordezkaritza beraren menpe jardun behar duten erabaki dezakeela. Hala ere, kasuz-kasu aztertu behar da, eta akusatzaile desberdinen artean bestelako interesak edo ikuspuntuak egonez gero, posiblea izango litzateke alderdi bakoitzak postulazioa izatea babesgabezia gauza ez dadin.

(3) Fidantza ematea

Fidantza jurisdikzio-organoak zehazten duen mota eta muntakoa izango da (PKLren 280. art.; BJLOren 20.3 art.). Konstituzio Auzitegiak adierazi duenez, fidantzaren muntak pertsonaren baliabideekiko proportzionala izan behar du, eskubide hori egikaritzeko oztupo izan ez dadin¹⁶. Fidantza eman behar izatearen zioa hau da:

¹⁵ PKLren 277 art.: “Kereila beti aurkeztuko da behar besteko ahalordea duen prokuradorearen bitartez eta letraduak izenpetua”.

¹⁶ Konstituzio Auzitegiak fidantzaren konstituzionaltasuna onartu dute, azaroaren 29ko 113/1984 eta urriko 29ko 147/1985 epaietan, besteak beste.



edozeinek parte har badezake prozesuan herri-akusatzaile gisa, funtsik gabeko herri-akusazioak sortzeko arriskua dago, eta hori saihestu beharra dago.

V. Akusatzaile partikularra

1. Kontzeptua eta oinarria

Akusatzaile partikularra delituak ofenditu duen pertsona fisiko edo juridikoa da eta, honen ondorioz, prozesuan akzio penala egikaritzen duena.

Autore batzuek akusazio partikularra hartzen dute akusazio bakartzat, horren barruan bi mota bereiziz: akusatzaile partikularra eta herri-akusatzailea. Lehenengoak EKren 24.1 artikuluan oinarritutako akzio penala egikaritzen du eta bigarrenak, aldiz, EKren 125. artikuluko herri-akzioa. Baina baldintzei eta ondorio juridikoei dagokienez, batoren eta bestearen akzioaren egikaritzan dauden desberdintasunak aintzat hartuta, biak desberdin behar direla deritzogu. Izan ere, akusazio bakoitzaren konstituzio-oinarria ez da berdina. Akusazio partikularrak EKren 24.1 artikuluan du oinarri¹⁷. Delituak ofenditua izan den pertsonak ez du inolako eskubide subjektiborik, baina akzio penala egikaritzeko legitimazio arrunta du, akzio-eskubidearen bitartez. Herri-akusazioaren oinarria, ordea, EKren 125. artikulua da; honen bitartez, delituak ofenditua izan ez dena prozesuan parte hartzeko ezohiko legitimazioa izango du. Bereizketa honen zuzeneko ondorioa zera da: akusatzaile partikularrak EKren 24.1 artikuluan oinarria duenez, hau da, manu horretan jasotzen den akzio-eskubidean, akusatzaile partikularrak akzio penala egikaritzeko eskubidea oinarritzko eskubidea da eta, hau urratua izanez gero, posible litzateke babes-errekurtsua jartzea. Herri-akusazioak egikaritzen duena, aldiz, ez da oinarritzko eskubidea; beraz, kasu honetan ez legoke babes-errekurtsua tarteratzerik.

2. Legitimazioa

Aurreratu dugunez, akusatzaile partikularra delituak ofenditua da, hau da, arau penalak babesten duen ondasun juridikoaren titularra, delituak kaltetu edo arriskuan jarri duen ondasun juridikoaren titularra, pertsona hau espainiarra edo atzerritarra den kontuan hartu gabe (PKLren 270 II art.). Beraz, edozein pertsona izan daiteke akusatzaile partikularra, bai espainiarra bai atzerritarra. Hemen ez dira herri-akusatzailearen baztertzak aplikatzen.

Printzipioz, ofenditua baino ez luke izango akusazio partikular gisa jarduteko legitimaziorik. Dena dela, esan behar dugu PKLk ez duela hau batere argi uzten bi izendapen erabiltzen dituelako: ofenditua eta kaltetua¹⁸. PKLren 109. artikulua *ofenditua* aipatzen du, 110. artikulua, delituak *kaltetutak* dio; eta 761.2 artikuluan, aitzitik –prozedura laburtuaren eremuan–, bai ofenditua bai kaltetua aipatzen ditu bien arteko bereizketarik egin gabe. Bere aldetik, apirilaren 27ko 14/2015 Delituaren Biktimaren Estatutu Juridikoaren Legeak ez du batere argitzen lagundu gai honetan, DBEJren 2. artikularekin bat biktimak dira bai ofenditua bai kaltetua.

¹⁷ Delituak ofenditua izan denak babes eraginkorrerako eskubidea du.

¹⁸ Ofenditua eta kaltetua desberdinak dira: arau penalak babesten duen ondasun juridikoaren titularra edo delituaren subjektu pasiboa ofenditua da eta ondasun juridikoaren titularra izan ez arren, haren kaltea edo gabetzearen ondorioz, kalteak pairatu dituena kaltetua da. Normalean ofenditua eta kaltetua pertsona bera izango da, baina, hainbatetan, desberdina. Oso argi ikusten da aipatutako desberdintasuna eraiketa delituari dagokionez; kasu honetan, hildakoa da ofenditua, eta kaltetua, aldiz, ofendituaren zuzeneko ahaideak. Kontzeptu desberdinak badira ere, PKLk batzuetan desberdintzen ditu eta, beste batzuetan, ez.





Biktimari dagokionez PKLren 109. eta 109 bis artikuluek aipamen berezia egiten dute, biktimari akzio penalak eta zibilak egikaritzeko eskubidea jakinarazi beharra ezarriz¹⁹. Hau hilda egonez gero, eskubidea 109 bis artikuluan jasotako pertsoneri aintzatesten zaie: ezkontidea, antzeko afektibitate-harremanaren bitartez lotutako pertsona eta seme-alabak, besteak beste.

Akusatzaile partikular moduan prozesuan parte hartzeko legitimazioa bai pertsona fisikoei bai pertsona juridikoei dagokie. Zentzu honetan, barne geratzen dira bitarteko erakundeak –nortasunik gabeko batasunak, baltzu irregularrak, ondare autonomoak–, Estatua, –Estatuko Abokatuaren bitartez–, korporazioak, elkarteak eta ukituen taldeak.

Legeak berariaz legitimazioa aintzatesten die biktimen elkarteei eta biktimen eskubideak babesteko pertsona juridikoei, biktimaren baimena badute (PKLren 109 bis 2 art.)

Akusatzaile partikularra delitu publiko eta erdi publikoengatik prozesuetan agertzen da²⁰. Delitu publikoak direnean, ofizioz nahiz alderdiak hala eskatuta has daiteke prozesua, vaina Ministerio Fiskalak nahitaez egikaritzeko du akzio penala. Horrez gainera, prozesuan ofenditua akusatzaile partikular gisa jardun dezake eta baita herri-akusatzailea ere ager daiteke. Delitu erdi publikoei dagokienez, hauek jazartzeko, alde aurretik ofendituak salaketa aurkeztu behar du –prozesuko baldintza osatzen duena–; prozesua hasitakoan, Ministerio Fiskalak parte hartuko du²¹. Hala ere, kontuan hartu beharra dago salaketaren bitartez delituaren berri baino ematen ez dela; beraz, ofendituak akusazio partikular gisa prozesuan parte hartu nahi izanez gero, kereila aurkeztu edo agerpen-idazkiaren bitartez agertu beharko du.

3. Baldintzak

(1) *Kereila (PKL 109., 109 bis 110. eta 761.2)*

Bi egoera desberdinu behar ditugu: prozesua hasi gabe edo hasita dagoen. Prozesua hasi gabe egonez gero, ofendituak kereila aurkeztu beharko du prozesuaren hasieraren eskaera egiteko eta alderdi bihurtzeko. Prozesua hasita badago, aldiz, kereila ez da beharrezkoa izango, alderdia izateko borondatearen idatzizko adierazpena eginda nahiko izanik. Adierazpen hori betiere akusazio edo kalifikazio-idazkia aurkeztu baino lehen egin beharko da, eta posiblea izango da, baldin eta alderdiak alde aurretik eskubideari uko egin ez badio (PKLren 649., 780. eta 800. art.).

Ildo honetan PKLren 109., 109 bis, 110. eta 761.2 artikuluek akzio-eskaintza izenekoa aurreikusten dute. Izapide honetan, ofendituei jakinaraziko zaie kereila jarri gabe ere prozesuan alderdi gisa jarduteko eskubidea dutela. Baina eskubide hau egikaritzeko muga preklusibo bat dago. PKLren 110. artikulua ezartzen du muga hori prozedura arrunterako: delituaren kalifikazioaren izapidea. Prozedura laburtuari dagokionez, aldiz, PKLren 761. artikulua ez du inolako preklusio-epetik adierazten, baina argi uzten du akusazio-idazkia aurkezteko izapidean egin beharko dela (PKLren 782.2 a) eta 783.2 art.).

Biktimari dagokionez²² PKLren 109. artikulua biktimari akzio penalak eta zibilak egikaritzeko eskubidea jakinarazi beharra jasotzen du²³ eta 109 bis artikulua zehazten du biktimaren akzio penala egikaritzeko aukera, jakinarazpena egin zitzaionean hari uko egin

¹⁹ Izan ere, DBEJren 11 a) artikulua adierazten du biktima guztiek akzio penalak eta zibilak egikaritzeko eskubidea dagokiela, betiere PKLk aurreikusten duenarekin bat.

²⁰ Hurrengo atalean ikusiko dugunez, burututako delitua pribatua izanez gero, prozesu penalean akzio penala egikaritzen duena akusatzaile pribatua izango da.

²¹ Kasu honetan ez da herri-akusatzailerik izango, ofenditua ez denak delitu erdi publikoengatik prozesuetan legitimaziorik ez duelako.

²² Testuinguru honetan, DBEJren 11-18. artikulua aipatu beharra dugu.

²³ DBEJren 7. artikuluekin bat.





ez bazion. Dena dela, biktima aurkeztuz gero, legeak argitzen du bera agertu baino lehen burututako jardunak ez direla atzera eramango ezta errepikatu ere (PKLren 109. bis 1 art.).

Bere aldetik PKLren 771.1. artikulua zehazten du poliziak duen beharra. Honela dio literaldi: “indarreko legerian, biktimei informazioa emateko ezarri eginbeharrak beteko ditu. Bereziki, informazioa idatziz emango die delituaren ondoriozko ofendituari eta kalledunari eurei 109 eta 110. artikuluen arabera dagozkien eskubideen inguruan. Ofendituari argibideak emango zaizkio kereila egin beharrik gabe alderdi izateko duen eskubideari buruz (...)”. Funtzio bera dagokio Justizia Administrazioaren Letratuari ofenditu eta kaltetuaren lehenengo agertze judizialean (PKLren 776.1 art.).

(2) *Fidantzarik ez* (PKLren 280. eta 281. art.)

Akusatzaile partikularrari ez zaio fidantzarik eskatzen, kasu honetan bidezko interesa duelako (PKLren 280. eta 281. art.). Dena dela, gain honen inguruan zerbait argitu beharko genuke. Berez, PKLren 280. artikulua dio auzi-jartzaile partikularrak fidantza eman behar duela, baina 281. artikulua salbuespen batzuk barne sartzen ditu. Honako pertsona hauek fidantza ematetik salbuetsita daude:

- Ofenditua eta horren jaraunleak edo legezko ordezkariak;
- Eraiketa edo giza hilketa-delituetan, alarguna, edo antzeko afektibitate-harreman bitartez lotutako pertsona, aurrekoak eta ondorengoak, bigarren gradurainoko albokoak, biktimaren jaraunleak eta delitugilearen amak, aitak eta seme-alabak.

Hau da, hemen, ofendituak, batetik, eta, bestetik, kaltetuak bereizten dira. Ofendituak beti daude fidantza jartzetik salbuetsita; kaltetuak, aldiz, giza hilketan eta eraiketa-delituan baino ez. Dena dela, praktikan ez da ofenditu eta kaltetuen artean desberdintzen.

- Biktimen elkarteak eta legeak biktimen eskubideak defendatzeko legitimazioa aintzatesten dien pertsona juridikoak, baldin eta akzio penalaren egikaritzea biktimak berak baimendua izan bada.

Aipatutako artikulua, gainera, adierazten du atzerritarrei fidantzatik salbuesten ez zaiela, nazioarteko hitzarmen bidez edo elkarrekikotasun ez badagokie.

VI. Akusatzaile pribatua

1. Kontzeptua eta oinarria

Akusatzaile pribatua delitu pribatuak²⁴ jazartzeko prozesuko beharrezko alderdia da. Gaur egun, Zigor-Kodeak aurreikusten dituen delitu pribatu bakarrak partikularren kontrako kalumnia eta irain-delituak dira (ZKren 215.1 art.). Aipatutako delituen jazarpena ofendituaren borondatearen menpe dago eta honek baldintzaten du prozesuaren hasiera, garapena eta amaiera.

2. Legitimazioa

ZKren 215.1 artikulua aurreikusten duenaren arabera, “inork ezin du zigorrik jaso kalumnia edo irain-delituagatik, baldin eta ofendituak edo haren ordezkari legalak kereilarik aurkeztu ez badu”. Beraz, hura da zigor-akzioaren titular bakarra, prozesuan akzio penala

²⁴ Beste hitz batzuetan, alderdiek eskatuta bakarrik jazartzen direnak.





egikaritzeko legitimatu bakarra edo, beste hitz batzuetan alderdi akusatzaile bakarra. Gogorarazten dugu kasu honetan Fiskaltzak ez duela legitimaziorik, ezta herri-akusazioak ere.

3. Baldintzak

(1) Adikidetzegaiakera

Legeak aurreikusten du kereila bitartez prozesuaren hasiera eskatu baino lehen, alderdien –kereilari eta kereilatua izango direnen– arteko adiskidetzegaiak saiatu behar dela. Izan ere, kereila ez da onartuko baldin eta, honekin batera, kereilariak adostasun gabeko adiskidetzegaiak burutu edo eragin gabeko adiskidetzegaiak saiatu dela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztzen ez badu (PKLren 278. eta 804. art.).

(2) Kereila

Kereila da delitu pribatuengatik prozesuetan akzio penala egikaritzeko era bakarra eta, aldi berean, ofenditua alderdi akusatzailea izateko era bakarra. Honek esan nahi du prozesua hasteko beharrezko egintza dela, betiere. Izan ere, azpimarratzekoa da ofendituak kereila aurkeztu ezean, ez dela prozesurik izango.

(3) Fidantzarik ez

Akusatzaile pribatua pertsona ofenditua eta kaltetua den neurrian, ez zaio fidantzarik eskatzen.

(4) Betekizun berezia: epailearen lizentzia (PKLren 279. eta 805. art.)

Epaiketan zehar burututako kalumnia edo irain-delitua izanez gero²⁵, aztertu beharra dago inputazioetan edo akusazioetan gehiegikeriaz jokatu den. Hala, epaiketa hori ezagutu duen epaileak lizentzia edo baimena eman beharko du. Adiskidetzegarekin gertatzen den bezala, kerilariak kereilarekin batera epailearen lizentzia aurkeztu behar du (ZKren 215.2 art. eta PKLren 279. eta 805. art.). Ezin dugu ukatu honela zigor-akzioaren egikaritza mugatzen dela, baina arrazoituta legokeela, honek bidegabeko zigor-prozesuak baztertzen dituen neurrian.

4. Ofendituaren borondatearen garrantzia (ZK 215.3; PKL 106.2, 275 eta 276)

Arestian aipatu dugunez, akusatzaile pribatuak delitu pribatuak jazartzeko prozesuetan posiblea den akusazio bakarra osatzen du. Prozesu osoa bere borondatearen menpe dago. Ofendituak erabakitzen du prozesuaren existentzia bera eta delituaren jazarpena, prozesuaren hasiera, garapena eta amaiera baldintzatuz.

Delitu publikoak epaitzeko prozesuetan, Ministerio Fiskalak nahitaez egikaritzen du akzio penala; honetaz gain, akusatzaile partikularrak eta herri-akusatzaileak ere parte har dezakete prozesuan. Guztiek dute legitimazioa. Baina ofenditua epaiketatik kanpo gelditzen bada ere –hau da, akusatzaile partikular moduan aurkeztu ezean–, prozesua ez da amaitzen, Ministerio Fiskalak prozesua amaitu arte eutsi behar diolako akusazioari (PKLren 105.1 art.). Kasu honetan, ofendituaren barkamenak ez du akzio penala azkentzen, ezta erantzukizun penala ere (PKLren 106. art.).

²⁵ Demagun akusatzaile partikularrak funtsik gabeko akusazioak egiten dituela.





Delitu erdi publikoak izanez gero, prozesua hasteko, alde zurretiko ofendituaren salaketa behar da eta, baldintza hau beteta, fiskalak egikaritu beharko du akzio penala²⁶. Gainera, ofenditua akusazio partikular gisa aurkez daiteke prozesuan, baina aurrerago prozesutik kanpo gelditzen bada ere, horrek aurrera jarrai dezake, Ministerio Fiskalaren eskutik.

Delitu pribatuak direnean, aitzitik, alderdi akusatzaile bakarra pribatua da; alderdi hau beharrezkoa eta bakarra da. Prozesuko hasiera eta amaiera akusatzaile pribatuaren esku dago; gainera, prozesua amaitu eta zigorra ezarrita egon arren, ofendituaren barkamenak erantzukizun penala azkentzen du (ZKren 215.3 art.), baldin eta “epaia eman baino lehen berariaz adierazten bada”. Honetarako epaileak edo auzitegiak ofendituari entzun beharko dio (ZKren 130.1.5. art.). Era berean, prozesua hasi eta akusatzaile pribatuak akzioari uko egiten badiu, akzioa azkentzen da (PKLren 106 II art.). Akzio penalarik uko egitea esanbidezkoa (PKLren 106 II eta 107. art.) nahiz isilbidezkoa izan daiteke (PKLren 112., 275. eta 276. art.); prozesua azkentzeko isilbidezko borondatea bi modutan adieraz daiteke:

- Eginbideak eskatzeari utziz: delitu pribatuengatik epaiketean, akzio penala egikaritzen duen akusatzaile bakarra pribatua denez, horrek prozesuarekin jarraitzeko eginbiderik eskatu ezean, isilbidez akzio penalarik uko egiten diola ulertu behar da. PKLren 275 artikulua adierazten duenaren arabera, akusatzaile pribatuak eskatutako azken eginbideak burutu zirenetik edo eginbiderik ez eskatzeagatik, prozesua gelditu zenetik hamar egun igaro ondoren, eginbideak burutzea eskatu behar duela jakinaraziko dio jurisdikzio-organoak, auto baten bitartez. Autoaren notifikazioa jaso eta ondorengo hamar eguneko epean eginbiderik eskatu ezean, akusatzaileak akzioari uko egin diola ulertuko da.
- Akusatzaile pribatua hil edo akzio penala egikaritzarekin jarraitzeko ezgaituta geratuz gero, jurisdikzio-organoak zitazioa egin zuenetik 30 eguneko epea izango dute haren jaraunse edo ordezkari legalek agertzeko. Epe horren barruan agertzen ez badira, hauek akzioari uko egiten diotela interpretatzen da (PKLren 276 art.).

VII. Alderdi akusatzaileen gaitasuna eta postulazioa

Gaitasun-baldintzak prozesu zibileko berak dira: alderdia izateko gaitasuna, hau da, jaiotzaz pertsona guztiek dutena, eta prozesuan jarduteko gaitasuna edo gaitasun prozesala, adin nagusikoa izatea eta eskubide zibilen egikaritzea osoa izatea eskatzen duena. Beraz, pertsona adingabea edo ezgaia izanez gero, akzio penala legezko ordezkariaren bitartez egikaritu beharko da.

Pertsona juridikoei dagokienez, hauek ordezkari-organoen bitartez jardungo dute.

Prozesu penalean postulazioa beharrezkoa da. Hala, alderdiek prokuradorearen ordezkari- eta abokatuaren laguntza izan beharko dute, delitu arinak epaitzeko prozesuetan izan ezik. Hala eta guztiz ere, azken hauei dagokienez legek salbuespen bat jasotzen du: delitu arinaren diru-zigorraren gehieneko muga, gutxienez, 6 hilabetekoa bada, postulazioa beharrezkoa izango da (PKLren 967. art.).

Estatu eta administrazio publikoek, Estatu Abokatuaren bitartez jarduten dute prozesuan. Ministerio Fiskalaren kasuan, estatuaren organoa denez, honek ez du beharko ez prokuradorerik ez abokaturik (EKren 124.1, PKLren 105 art.).

²⁶ Gogorarazten dugu delitu erdi pribatuei dagokienez herri-akusatzaileak ez duela akzio penala egikaritzeko legitimaziorik.





Material osagarria

1. Araudia

- Prozedura Kriminalaren Legea, 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez aldarrikatu dena (PKL)
- 1978ko Espainiako Konstituzioa (EK)
- 50/1981, Legea, abenduaren 30ekoa, Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa arautzen duena (MFEO)
- 19/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa (ZK)
- 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena (DBEJ)

2. Jurisprudentzia

- Azaroaren 29ko 113/1984 KAE
- Urriaren 29ko 147/1985 KAE
- Abenduaren 21eko 241/1992 KAE
- Maiatzaren 2ko 234/1982 AGE
- Abenduaren 17ko 1045/2007 AGE
- Apirilaren 8ko 54/2008 AGE

3. Bibliografia

- CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, *Hacia un nuevo proceso penal. Cambios necesarios*, La Ley, Madril, 2011.
- CHOZAS ALONSO, José Manuel, *Los sujetos protagonistas del proceso penal*, Dykinson, Madril, 2015.
- DE URBANO CASTRILLO, Eduardo, “¿Es conforme a Derecho el procesamiento de la Infanta Cristina a la vista de la doctrina Botín?”, *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 898. zk., 2015.
- GIMÉNEZ GARCÍA, Joaquín, “Reflexiones sobre la acción popular en el proceso penal desde la jurisprudencia de la Sala Segunda del Tribunal Supremo”, *Eguzkílore*, núm. 23. zk., 2009.
- GRANDE-MARLASKA GÓMEZ, Fernando, “La acción popular–la acusación particular”, AAAA (Zuz. ETXANO BASALDUA, Juan Ignacio), *Problemas actuales del proceso penal y derechos fundamentales*, Deustuko Unibertsitatea Argitalpenak, Bilbo, 2010.
- LÍBANO BERISTAIN, Arantza, *Los delitos semipúblicos y privados: aspectos sustantivos y procesales*, J.M Bosch, Bartzelona, 2011.
- MARTÍN SAGRADO, Óscar, “El uso patológico de la acción popular. Su inaplazable reforma”, *Diario la Ley*, 8743. zk., 2016.
- MATEOS GORDILLO, Miguel, “El Ministerio Fiscal, órgano de relevancia constitucional: su autonomía y su papel en el proceso penal”, *Revista jurídica Universidad Autónoma de Madrid*, 34. zk., 2016.
- RODRÍGUEZ MOURULLO, Gonzalo, “Desarrollo y consolidación de la denominada doctrina Botín”, *Revista de Aranzadi de Derecho y Proceso Penal*, 40. zk., 2015.
- TINOCO PASTRANA, Ángel, “La participación de las asociaciones de víctimas como parte acusadora en el proceso penal y el nuevo Estatuto de la víctima del delito por el que se transpone la directiva 2012/29/UE”, *Cuadernos de política criminal*, 115. zk., 2015.